

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Araba Garapen Agentziaren eta Iruña Okako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 7. xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, jendaurreko informazioaren pean jartzen da Araba Garapen Agentziaren eta Iruña Okako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena. Haren xedea lankidetzaren ekonomikoa da, 50.000 euro jarri San Jose de Los Llanosko industrialdean irisgarritasuneko obrak egiteko eta 2010eko martxoaren 25ean alderdien artean sinatutako hirigintza hitzarmena aldatzen du. Jendaurrean informatzeko epea hogeita eguneko da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik zenbatuta, egoki irizitako alegazioak egiteko, eta hori 2019ko urtarrilaren 9ko osoko bilkuraren erabakiaren arabera.

Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, hitzarmena hasiera batean onartutzat joko da.

Langraiz Oka, 2019ko urtarrilaren 23a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA

Hitzarmenaren testua

"Alde batetik,

José Javier Martínez García, Iruña Okako Udaleko alkatea, udalerrin horren izenean eta hura ordezkatuz.

Bestetik,

Julio Guinea Martín, 16254541-G zenbakiko NANA duena, ondorio horietarako helbidea Gasteizko Joaquín José Landazuri kaleko 15ean duena, Araba Garapen Agentziaren (aurrerantzean AGA) izenean eta hura ordezkatuz, zuzendari gerentea den aldetik. Ordezkapen hori frogatzeko sozietatearen erabakiak publiko egiteko, botereak errebokatzeko eta botereak emateko eskrituraren fotokopia aurkezten du, 2015eko urriaren 1ean EAEko Elkargo Agurgarriko notario den Fernando Ramos Alcázarren aurrean haren protokoloaren 965 zenbakiarekin emandakoarena.

Berlaratuek, erakundearen arteko harreman orok oinarri izan behar dituen koordinazio, lankidetzaren eta elkarrenganako errespetuaren printzipioen esparruaren barruan, nahikoa lege gaitasun aitortzen diote elkarri lankidetzaren hitzarmen hau egiteko eta, horregatik, honako hau

Azaltzen dute

I. 2010eko martxoaren 25ean alderdien artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren bidez, Araba Garapen Agentzia SARI San Jose de Los Llanosko industrialdeko 2. sektorearen aprobetxamenduari dagokion eraikigarritasunaren ehuneko 5 lagatzeagatik ordaintzea zegokion bostehun eta bederatzita mila hirurehun eta hogeita hemeretzi euro eta laurogeita hiru zentimoak (509.339,83. euro), batez ere, industrialde horretako "1. sektoreko bideen urbanizazioa hobetzeko" erabiliko zirela erabaki zen, zenbateko horretan hauek sartuz: "proiektua idazteko ordainsariak, konpontzeko proiektu osagarriaren aurrekontuaren zenbatekoa eta, beharrezkoa bada, baita eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ere".

II. Hitzarmen hau sinatzeko datan idatzita dago Los Llanos 1 industrialdea birgaitzeko proiektua.

2012an egindako proiektu horrek dagokion eraikuntza, instalazio eta obretarako udal lizentzia eskuratu zuen, alkate-lehendakariaren 2016ko urtarrilaren 26ko 41-16 Ebazpenaren bidez.

Proiektu hori idazteko kostua, 16.657,50. eurokoa, Araba Garapen Agentzia SAK ordaindu du, hitzarmen honen I. azalpenean identifikatutako kopuruaren kargura.

Halaber, obra zuzendaritza kontratatu da. Haren zenbatekoa, ordaintzeke dagoena, 16.657,50. eurokoa da. Kopuru hori obra egindakoan ordainduko da.

III. Los Llanos 1 industrialdea birgaitzeko proiektu hori 2010ean alderdien artean sinatutako hitzarmenean definitutako irizpidearen arabera idatzi zen (hitzarmen honen I. azalpenean aipatu da hura), eta adostutako kopurua industrialdea konpontzen inbertitzean zetzan.

Irizpide horrek 1. sektorea osorik hobetzea bermatzen ez zuenez eta, idatzi zenetik, kalte handiagoak (aglomeratuari dagozkionak batez ere) hauteman direnez, beharrezkotzat jotzen da birgaitzeko proiektu berri bat idaztea, sektore horren urbanizazioan dauden kalte guztiak konpontzea jasoko duena.

IV. Iruña Okako Udalak eskatuta, Araba Garapen Agentzia SAK 50.000. euroko ekarpena egingo dio udal horri, San Jose de Los Llanosko industrialdeko 2. sektoreari dagokion aprobetxamenduaren lagapenagatik (ehuneko 5) zor zuen kopuruaren kargura.

Iruña Okako Udalak dioenez, kopuru hori San Jose de Los Llanosko industrialdeko 1. sektorearen irisgarritasuna hobetzeko (espaloia jartzeko) zenbait obra egiteko erabiliko da.

V. Iruña Okako Udalak, bere aldetik, San Jose de Los Llanosko industrialdeko 1. sektoreko argiztapena egin eta ordainduko du.

VI. 2016ko ekainaren 16an behin betiko onartu zen San Jose de Los Llanosko industrialdeko 2. sektorea konpentsatzeko proiektuaren aldaketa.

VII. Hitzarmena sinatu zen datatik (2010eko martxoaren 25etik) egun arte Udalaren ustez beharrezkoa da Araba Garapen Agentzia SAK San Jose de Los Llanosko industrialdeko 2. sektorearen aprobetxamenduari dagokion eraikigarritasunaren ehuneko 5 lagatzeagatik zor duen zenbatekoari aplikatu beharreko kontsumoko prezioen indizeen eguneraketa berrikustea. Eguneraketa hori konpentsazio proiektuaren aldaketa behin betiko onartzen den unetik, aurreko azalpenean adierazitakotik, egin beharko da.

VIII. Kontsumoko prezioen indize orokorrak konpentsazio proiektuaren aldaketa behin betiko onartu zenetik hitzarmen hau sinatu arte izandako bariazioa ehuneko 4,4koa da.

Klausulak

Lehenengoa. Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea 2010eko martxoaren 25ean Iruña Okako Udalaren eta Araba Garapen Agentzia SAKen artean sinatutako hitzarmenaren arabera bien artean sortutako harremanak hitzarmen honen azalpenetan azaldutako inguruabarretara eguneratu eta egokitzea da. Beraz, hitzarmen hori aldatzen da.

Bigarrena. Araba Garapen Agentzia SAK hartutako konpromisoak

Araba Garapen Agentzia SAK konpromiso hauek hartzen ditu:

Berrogeita hamar milako (50.000. euro) ekarpen ekonomikoa egitea Iruña Okako Udalaren alde, Udal horrek hitzarmen honen IV. azalpenean identifikatutako irisgarritasun obra (espaloia jartzea) egin ahal izateko.

Zenbateko hori (50.000. euro) San Jose de Los Llanosko industrialdeko 2. sektoreari dagokion aprobetxamenduaren lagapenagatik (ehuneko 5) ordaindu behar duen kopuruari kenduko zaio.

San Jose de Los Llanosko industrialdeko 2. sektoreari dagokion aprobetxamenduaren lagapenagatik (ehuneko 5) ordaindu behar duen kopurua (hitzarmen honen laugarren klausulan zehazten den kopurua) Los Llanos 1 industrialdea birgaitzeko proiektu berria idazteko ordainsari teknikoak ordaintzeko eta industrialde horretan egin beharreko obra ordaintzeko erabiltzea.

Hirugarrena. Iruña Okako Udalak hartutako konpromisoak

Bere aldetik, Iruña Okako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

Bere gain hartzea San Jose de Los Llanosko industrialdeko 1. sektorea konpontzeko obrei dagokien argiztapena egitea.

Los Llanos 1 industrialdea birgaitzeko proiektu berria idazteko ordainsari teknikoaren eta industrialde horretan egin beharreko obraren kostua ordaintzea, Araba Garapen Agentziak San Jose de Los Llanosko industrialdeko 2. sektoreari dagokion aprobetxamenduaren lagapenagatik (ehuneko 5) ordaindu behar duen kopurua gainditzen duenagatik estali gabeko zatian, hitzarmen honen laugarren klausulan adierazten denez.

Laugarrena. Aprobetxamendua lagatzeko betebeharraren zehaztapena

Iruña Okako Udalak onartzen du, hitzarmen hau sinatzeko datan, Araba Garapen Agentziak San Jose de Los Llanosko industrialdeko 2. sektoreari dagokion aprobetxamenduaren lagapenagatik (ehuneko 5) ordaindu behar duen kopurua laurehun eta laurogeita hamabi mila seiehun eta laurogeita bi euro eta hiru zentimokoa dela (492.682,33. euro = 509.339,83. euro - 16.657,50. euro). Halaber, onartzen da hori zela Araba Garapen Agentzia SAK hitzarmen honen VI. azalpenean identifikatutako konpentsazio proiektuaren aldaketa behin betiko onartzeko unean zor zuen kopurua.

Kopuru hori kontsumoko prezioen indizearen arabera eguneratu behar da. Eguneraketa hori eginda, onartzen da Araba Garapen Agentziak San Jose de Los Llanosko industrialdeko 2. sektoreari dagokion aprobetxamenduaren lagapenagatik (ehuneko 5) zor duen kopurua bostehun eta hamalau mila hirurehun eta hirurogei euro eta hogeita bost zentimokoa dela (514.360,35. euro = 492.682,33. euro x ehuneko 4,4).

Halaber, Iruña Okako Udalak onartzen du Araba Garapen Agentzia SAK irisgarritasun obra (espaloia jarri) egiteko bere gain hartutako berrogeita hamar mila euroak (50.000. euro) ordaintzeko konpromisoa betetakoan, Araba Garapen Agentziak San Jose de Los Llanosko industrialdeko 2. sektoreari dagokion aprobetxamenduaren lagapenagatik (ehuneko 5) ordaindu beharreko kopurua laurehun eta hirurogeita lau mila hirurehun eta hirurogei euro eta hogeita bost zentimokoa izango dela (464.360,35. euro = 514.360,35. euro - 50.000,00. euro).

Hasierako zenbatekoa: 509.339,83. euro.

Proiektua idaztea: 16.657,50. euro.

2016ko ekainean zor den kopurua: 492.682,33. euro.

KPIren eguneraketa: 514.360,35. euro.

Irisgarritasun obra: 50.000,00. euro.

Gainerako kopurua: 464.360,35. euro.

Alderdiek onartzen dute kopuru hori (464.360,35 euro) Los Llanos 1 industrialdea birgaitzeko proiektu berria idazteko ordainsari teknikoak ordaintzeko, zein industrialde horretan egin beharreko obra ordaintzeko erabiliko dela.

Kopuru hori (464.360,35 euro), dagozkion eguneraketekin, kostu guztiak (proiektu berria idaztea eta obra egitea) ordaintzeko aski ez bada, alderdiek onartzen dute kostu gehigarria Iruña Okako Udalaren kargura izango dela bakarrik (hitzarmen honen hirugarren.2 klausulan hartutako konpromisoa betez), horretarako aurrekontu-kontsignazioa edukiz gero.”